

AUTOEBALUAZIOA**V. MODULUA: SENDAGAIEN ADMINISTRAZIOA NERBIO SISTEMA ZENTRALEAN**

1. Sendagaien administrazioa nerbio sistema zentralean:

- a) **Ohiko administrazio bideak erabiltzen direnean farmakoek NSZ-era heltzeko duten gaitasun ezak administrazio-bide hau erabiltzea justifikatzen du**
- b) Diagnostikoan bakarrik erabiltzen da, eta ez sendagaiak administratzeko
- c) Ohiko administrazio bidea da, gihar-barnekoa baino gehiago erabiltzen dena
- d) Farmakoak espazio epiduraleko kapilarrak zeharkatuz odolera iristen direnez ez da oso bide eraginkorra

2. Tekka-barneko bidearen konplikazio nagusia:

- a) **Zefalea**
- b) Hipotentsioa
- c) Hematomak
- d) Trauma, orratzarengatiko lesioak

3. Zertan datza bide epidurala?

- a) **Farmakoaren administrazioa espazio epiduralean**
- b) Farmakoaren administrazioa likido zefalorrakideoan
- c) Farmakoaren administrazioa bentrikulu-barnean
- d) Farmakoaren administrazioa bizkarrezur-muinan

4. Zertan datza teka-barneko administrazioa?

- a) **Farmakoaren administrazioa araknoide-azpiko espazioan**
- b) Farmakoaren administrazioa espazio epiduralean
- c) Farmakoaren administrazioa duramadre eta araknoides mintzaren tartean
- d) Farmakoaren administrazio zuzena bizkarrezur-muinan

5. Farmako lipodisolbagarri baten teka-barneko administrazioa:

- a) **Eraginaren iraupena farmako hidrodisolbagarri baten administrazioarekin lortzen dena baino laburragoa da**
- b) Eraginaren iraupena farmako hidrodisolbagarri baten administrazioarekin lortzen dena baino luzeagoa da
- c) Farmakoa duramadrean zehar motelki barreiatzen da
- d) Odol-hodietara ia ez dira pasatzen espazio epiduralean

6. Farmakoen teka-barneko administrazioaren abantaila nagusia:

- a) **Dosi baxuen administrazioa ahalbidetzen du, efektu kaltegarrien probabilitatea gutxituz**
- b) Bai farmako hidrodisolbagarriak bai farmako lipodisolbagarriak administratu ditzakegu
- c) Farmakoa likido zefalorrakideoan administratzean, farmakoaren pisu molekularrak ez dauka bere disposizioan inolako eraginik
- d) Oso pH altua edo baxua duten disoluzioen administrazioa ahalbidetzen du